

5. atala: Taldean

## 5. Atala: Despedida festa

5.1.- Bosgarren atala entzun aurretik, etxean entzundako atalen laburpena egin taldetan, eta konparatu 4. atalean egindako emotikoen aukeraketa. Bat al zatozte?

5.2.- Entzun 5. atala eta erantzun galdera hauei. Bukatutakoan, alderatu zure ikaskideekin.

1. Zergatik egingo dute despedidako festa?

---

2. Nor ez da festa horretara joango eta zergatik?

---

3. Nolakoak dira festa horretan Johnson eta kapitainaren arteko harremanak? Zergatik?

---



5.3.- Lehenengo 5 audioetan, belztutako hitz hauen sinonimoak agertu dira. Ea gogoan dituzun! Elkartu zure ikaskide batekin eta lotu bakoitza bere sinonimoarekin.

1. Eskisabel kapitaina naiz eta operazio honen **jefea** izango naiz.
2. Banuen zuek **bertatik bertara** ezagutzeko gogo.
3. **Broman** ari zara, ezta?
4. Emakume hau beti al dago hain **haserre**?
5. Ez dut ongi ulertu misio honen izenaren **arrazoia**.
6. Baina haurdun zegoela konturatzerako, pilotariak **alde egin** zuen.
7. Independentziarena, **beharbada**, ez zen hain ideia ona izan.
8. Badakizu zure **egitekoa** garratzi handikoa dela.
9. Bai, bai. Benga, **ospa!**
10. Goazen barrura, **edaria** amaitu zait eta.

- edatekoa
- hanka egin
- burua
- txantxetan
- aire
- betebeharra
- muturtuta
- zergatia
- aurrez aurre
- akaso

5. atala: Taldean

5.4.- Tasiok batzuetan aditzak hitano forman erabiltzen ditu; hemen duzu pasarte bat. Forma neutroan jarriko al duzu?

Tasio- Nik zer **zekiat** (*dakit*) ba. Joder, normalena muesli barritak izatea  
**hukek** \_\_\_\_\_ , astronautak **gaituk** \_\_\_\_\_ .  
Astronautak eta mueslia, bata beti bestearekin **zeturrek**  
\_\_\_\_\_

Tasio- Ba nik ez **nik** \_\_\_\_\_ esango beltza **haizenik**  
\_\_\_\_\_ .

Tasio- **Esadak** \_\_\_\_\_ “darling” berriro eta hortzik gabe joango  
**haiz** \_\_\_\_\_ espaziora.



5.5- Konparaziozko esaldi batzuk dituzu hemen, batzuk istorio honetakoak. Osatu hutsuneak, konparaziozko zati egokiena aukeratu.

Hi baino morenoago / Tipo hau baino inor hobea gorik /  
Ohikoa baino urduriago zaudela / Oraina baino askoz gozoagoa dela /  
Bizitzen ari naizen presentea baino ederragoa / Gu baino hobeto dagoena  
/  
Olentzeroren ipurdia baino beltzagoa

\_\_\_\_\_ nauk!  
Nire senarra pare bat egunetan eguzkia hartu eta \_\_\_\_\_ jartzen da.  
Benetan diozue ez zegoela \_\_\_\_\_ operazio honetarako?  
Johnson jauna... \_\_\_\_\_ ez duzu ukatuko.  
Iragana \_\_\_\_\_ esateko joera dago.  
Ez daukat nire zain \_\_\_\_\_ den ezer.  
Ez dago gaizki \_\_\_\_\_

5.6.- Talde txikietan lehenik, eta denok elkarrekin ondoren, komentatu puntu hauek:

- Laugarren pertsonaiak –Hal-ioneek– norbait edo zerbait gogorarazten al dizue? (izenak, esaten duenak...)
- Nola jarraituko du istorioak? Abiatuko al dira espaziora?
- Espazioko istorioak filmetan ikustera ohituta gaude. Trebiñu II, ordea, ez dugu ikusi, entzun baizik. Hala ere, seguru oharkabean aurpegi bat jarri diozuela dagoeneko pertsonaia bakoitzari. Elkarrekin emaiozue pertsonaia bakoitzari aktore ezagun baten aurpegia. Bat al zatozte?



**Ikasbileko fitxa: [2283599](tel:2283599)**

## Transkripzioa (03:13)

E- Tasio, Johnson jauna, badakizue gaurkoa izango dela zuen azken gaua agentzian eta azken afari bat antolatu dizuegu.

T- Nik nire azkeneko gaua senarra eta seme-alabekin pasa nahiko nuke.

E- Joder, motel, heriotza-zigorrera kondenatu zaitugula dirudi!

T- Komentario horrek ez du asko laguntzen.

E- Joan zaitex ba zure neo-baserrira zure pottokekin, baina badakizu, bihar goizeko 6etan hemen...

T- Badakizu hemen izango naizela.

E- Bai, bai, benga, aire!

E- Eta zuk, Johnson jauna. Zuk afalduko al duzu gurekin?

K- Jakina, ez daukat beste zereginik. Ez naiz Miamira joango afaltzera.

E- Eskerrak, afaria eta festatxoa antolatu dutelako teknikari eta ingeniariak.

K- Festa? Zeri deitzen diozue zuek hemen festa?

K- Aizu, ba, azkenean ez da hain gaizki egon.

E- Ez nekiena zen alkohola ere izango genuenik.

K- Ez zenekiela! Ba, eskuetan duzun hori ez da ura prezisamente.

E- Bai, gin-tonic bat da, bai, baina infantila.

K- Baina benetan diozu ezin dudala piti bakar bat ere erre?

E- Txantxetan ari zara, ezta?

K- Hori ez da ba lehengo gin-tonica!.

E- Esan dizut aurrekoa infantila zela. Ez du kontatzen.

E- Eta ez al dute baladarik jarri behar?

K- Eskatuko diot DJ-ari. Zer? Zer nahi duzu?

E- Buf, musika klasiko zalea naiz. Scorpions-en Still loving you...

H- Hemen Hal-ione Iurretara deika. Hal-ione Iurretara deika. Iurreta, arazo bat dugu.

K- E! Aterako gara kanpora momentu batean?

E- Zuk nahi duzuna da ezkutuan erre.

K- Ba...ba bai!

E- Ez ikusiarena egingo dut behingoz.

K- Uuuuu... Eskisabel kapitaina legearen kontra!

E- Gin-tonic bat behar dut.

K- Nire ipurdiari begira al zaude?

E- Zer? Nola? Baita zera ere!

K- Bai, nire ipurdiari begira zaude.

E- Ez esan tontakeriarik!

K- Ba zure aginduetara kapitaina, ipurdian zaplaztekoak ematea gustatzen zait. Badakizu zer esan nahi dudana... Grrrr... eta zure uniforme horrekin... ja!

E- Kendu nire bistatik! Goazen barrura, edatekoa amaitu zait-eta.

K- Bueno, ba Eskisabel kapitaina, amaitu da festa. Zure logelaraino lagunduko zaitut eta... eta gero banoa, e nirera.

E- Ummmm... Kevin Mikel, bibotetxoa dudala uste duzu? Nola esan zenuen? Barra-kodigoa?

K- Hain zaude muturtuta beti!

E- Muturtuta? Sartu nahi duzu azken kopatxoa hartzera?

## Erantzunak

### 5.2-

1. Zergatik egingo dute despedidako festa? Agentzian emango duten azken gaua delako.
2. Nor ez da festa horretara joango eta zergatik? Tasio Sarasola ez da joango, bere azken gaua senarra eta seme-alabekin pasa nahi duelako.
3. Nolakoak dira festa horretan Johnson eta kapitainaren arteko harremanak? Zergatik? Ligoteoan arituko dira: balada bat eskatuko du Eskisabelek, ipurdiari begira ari zaiola esango dio Johnsonek, ipurdian zaplaztekoak ematea gustatzen zaiola, Eskisabel edan eta edan arituko da...

### 5.3-

1. Eskisabel kapitaina naiz eta operazio honen **jefea** izango naiz. (burua)
2. Banuen zuek **bertatik bertara** ezagutzeko gogo. (aurrez aurre)
3. **Broman** ari zara, ezta? (txantxetan)
4. Emakume hau beti al dago hain **haserre**? (muturtuta)
5. Ez dut ongi ulertu misio honen izenaren **arrazoia**. (zergatia)
6. Baina haurdun zegoela konturatzerako, pilotariak **alde egin** zuen. (hanka egin)
7. Independentziarena, **beharbada**, ez zen hain ideia ona izan. (akaso)
8. Badakizu zure **egitekoa** garratzi handikoa dela. (betebeharra)
9. Bai, bai. Benga, **ospa!** (aire)
10. Goazen barrura, **edaria** amaitu zait eta. (edatekoa)

### 5.4-

- T- Nik zer **zekiat** (dakit) ba. Joder, normalena muesli barritak izatea **hukek** (da) , astronautak **gaituk** (gara) .  
Astronautak eta mueslia, bata beti bestearekin **zeturrek** (dator)
- T- Ba nik ez **nik** (nuke) esango beltza **haizenik** (zarenik) .
- T- **Esadak** (esadazu) “darling” berriro eta hortzik gabe joango **haiz** (zara) espaziora.

### 5.5-

- Olentzeroren ipurdia baino beltzagoa nauk!  
Nire senarra pare bat egunetan eguzkia hartu eta hi baino morenoago jartzen da.  
Benetan diozue ez zegoela tipo hau baino inor hobeagorik operazio honetarako?  
Johnson jauna... ohikoa baino urduriago zaudela ez duzu ukatuko.  
Iragana oraina baino askoz gozagoa dela esateko joera dago.  
Ez daukat nire zain bizitzen ari naizen presentea baino ederragoa den ezer.  
Ez dago gaizki gu baino hobeto dagoena

### 5.6-

- Laugarren pertsonaiak –Hal-ioneek– norbait edo zerbait gogorarazten al dizue? (izenak, esaten duenak...)  
Hal-ioneek *2001: A Space Odyssey* filmeko Hal 9000 konputagailutik hartu du bere izena. Pertsonaia horretan oinarrituta dagoela esan daiteke, ukitu euskaldunarekin, nola ez.